



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 6a

95. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00009. Foru Lege proiektua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzekoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/MOC-00063. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (5. or.).

—10-22/MOC-00064. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraraziz. Cristina Ibarrola Guillén andreak, Patricia Fanlo Mateo andreak, Geroa Bai talde parlamentarioak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).

—10-22/MOC-00066. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriemaile gazteen programa bultza dezan gure Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

—10-22/MOC-00067. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultzalana egin dezan Nafarroako aterpetxeek Espainiako Gazteen Aterpetxeen Espainiako Sarearekin bat egin dezaten. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).

—10-22/MOC-00068. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira arduraz jokatu eta inbertsioen lehentasunak, bereziki Abiadura Handiko Trenaren proiektuari dagozkionak, birpentsa ditzaten. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (9. or.).

—10-22/MOC-00069. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean zerga erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, PFE-Zaren kargen eskalako likidazio oinarrien deflaktazioa, inflazioaren araberakoa, edukiko duena. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (10. or.).

- 10-22/MOC-00070. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean Sozietateen gaineko Zergaren erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, haren diru-bilketaren igoera esanguratsua ekarriko duena. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (11. or.).
- 10-22/MOC-00071. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa bete dezala. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (12. or.).
- 10-22/MOC-00072. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZaren tarifa deflakta dezan. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (13. or.).
- 10-22/MOC-00073. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan “Nafarroako estepako hegaziak berreskuratu eta kontserbatzeko plana” onetsi eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua izendatzen duen foru dekretuaren proiektua. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (14. or.).
- 10-22/MOC-00074. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziatzea eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (15. or.).
- 10-22/MOC-00075. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako banku publiko bat sortu beharra dagoela erabakitzen da. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (16. or.).
- 10-22/MOC-00076. Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharkako neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (17. or.).
- 10-22/MOC-00077. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen da departamentuekin koordinatuta lan egin dezan gazteei zuzendutako neurri urgenteen sorta bat ezartzeko, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harreman afektibo-sexualen gainean hezi eta prestatze aldera. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (18. or.).
- 10-20/MOC-00086. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errepide-politika berriak dezan eta Bide Azpiegituren aldeko Nafarroako Ituna lortzeko lan egin dezan. Mozioa erretiratzea (20. or.).
- 10-20/MOC-00129. Mozioa. Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premiatzen da modu argi eta zehatzean adieraz ditzan hezkuntza maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak. Mozioa erretiratzea (20. or.).
- 10-21/MOC-00082. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue 2021 Plan Globalen beharrezkoak diren jarduketak zorrotasunez eta epean egin ditzan. Mozioa erretiratzea (21. or.).
- 10-22/MOC-00030. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, inpaktuak neurtzeko eta Nekazaritza Politika Erkide berri bat taxutzeko. Mozioa erretiratzea (21. or.).
- 10-22/MOC-00037. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile aktiboa izateko. Mozioa erretiratzea (22. or.).
- 10-22/MOC-00060. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan Aragoirekin batera proposatutako Pirinioetako hautagaitzarekin, Neguko Olinpiar Jokoetarako. Mozioa erretiratzea (22. or.).
- 10-21/MOC-00125. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Daniel Ortégaren gobernu sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldeztzen. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea (23. or.).
- 10-22/MOC-00020. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan. Osoko Bilkuran izapidetzea (23. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emeleak:

- 10-22/DLF-00003. 3/2022 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, aldatzen duena apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00009. Foru Lege proiektua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2022ko abuztuaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzararekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzekoa

Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka da, eta oso kasu zehatzetan baizik ez dira zuzenean ematen, besteak beste, "dirulaguntza izendunak" izenaz ezagutzen direnak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan jasota daudenak

alegia. Manu horren arabera, ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuei buruzko Foru Legean aurreikusitako dirulaguntzak zuzenean eman daitezke, Parlatmentuak onetsitako zenbatekoan, helburu jakin baterako eta hartzaile jakin bat identifikatuta. Horrek ez du eragozten foru lege horretan araututako gainerako gaiak aplikatzen jarraitzea: oinarri arautzaileen edukia, justifikazioen araubidea, aurrerakinak eta ordainketak, gastu diruz lagungarriak...

Bestalde, Nafarroako 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 40. artikulua aldatu zen, etorkizuneko ekitaldien kargura gastu-konpromisoak hartzea eragozteko, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17.2.a) artikuluan jasotako dirulaguntzak ematen direnean. Artikulu horren testuak behartzen du dirulaguntza izendunen oinarri arautzaileak eratzera halako moldez non obligazioak ekitaldi berean aitortuko diren, eta horrek oso eragin negatiboa izan dezake lortu nahi den helburuan; izan ere, litekeena da proiektuak edo jarduerak gauzatzeko denbora luzeagoa behar izatea ekitaldiaren amaieran obligazioa aitortu beharrak dakarrena baino, eta aurrerakina dirulaguntzak ordaintzeko modu gisa erabiltzea ez da beti posible izaten. Dirulaguntzaren xede diren jarduketetarako denbora luzeagoaren beharra bereziki nabarmena da ziurgabetasun ekonomikoko garai hauetan, non kontratazio publikoko prozesuetan atzerapenak gertatzen ari baitira lizitatzailerik ez dagoelako eta kontratuen adjudikazioa atzeratzen ari delako; hori eragin handia izaten ari da kontratazio publikoari buruzko araudiaren mende dauden erakundeek jasotzen dituzten dirulaguntzetan.

Ondorio negatibo horiek saihesteko, beharrezkoa da dirulaguntza horien ordainketa aurreratua egiteko aukera, 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluan jasotakoa, "dirulaguntza izendunetara" zabaltea, aurrekontuaren urteko denbora-mugak ez dezan eragin justifikaziorik gabeko murrizketarik

dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera gauzatzeko. Horrela, obligazioak ekitaldi berean aitortu beharko dira beti, eta dirulaguntza ematen duten organoek dirulaguntza horien jarraipena eta egiaztapenak egin beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 38. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bestalde, ziurtatu behar da diruz lagundutako jarduketak berehala hasiko direla gauzaten, eta gauzatuko direla arrazoizko epeetan, jarduera horien izaerarekin bat datozenetan; bestela, onuradunaren aldi baterako finantzaketa-mekanismo bihur liteke, emandako dirulaguntzaren izaera finalistarekin bateraezina da, eta nekez justifika daiteke eraginkortasunaren ikuspegitik, onura publikoko helburu bat lortzeari dagokionez. Dagoeneko finantzatuta dauden jarduketak gauzatzeko justifikaziorik gabeko atzerapenak saihesteko, egokitze jotzen da 33.5 artikuluari beste paragrafo bat gehitzea, justifikazio-epetari buruzkoa.

Dirulaguntzei buruzko Foru Legea adierazitako moduan aldatuta, lehen aipatutako ondorio negatiboak saihestuko dira. Hala ere, ekitaldi honetan jada emandako dirulaguntzetarako, komenigarria litzateke bermatzea oinarri arautzaileak aldatu ahal direla emandako zenbatekoaren aurrerakinaren aukera sartzeko. Aldaketa horretarako ez litzateke arazorik egon behar, baina dirulaguntzak ematea oinarritu zuen esparru juridikoa ez den beste bat aplikatu nahi denez, arrazoizkoa da planteatzea aldaketa horiek lege-estaldura espezifikoa izan behar dutela. Horrenbestez, hori jasoko duen xedapen iragankor bat gehitu beharko litzateke.

Artikulu bakarra. Aldaketa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean.

Bat. 33. artikularen 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Gainerako onuradunen kasuan, emandako dirulaguntzaren ordainketak aurreratzen ahalko dira dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan hori berariaz aurreikusten denean soilik, oinarriok ezarritako muga, baldintza eta, hala egokituz gero, bermekin, eta, betiere, dirulaguntzaren xedeak betetzeko funts-horniduraren beharra justifikatzen baldin bada, edo foru lege honen 17. artikuluko 2.a) apartatuan adierazitakoaren babesean emandako dirulaguntzak direnean”.

Bi. 33. artikularen 5. apartatuari beste paragrafoa bat gehitzen zaio. Hauxe da edukia:

“5. Oinarri arautzaileek dirulaguntzaren guztizko aurrerakina emateko aukera ezartzen duten kasuetan, diruz lagundutako jarduera dirulaguntza ematen den ekitaldian hasi beharko da, eta gauzatzeko epea izanen da dirulaguntzaren izaerari dagokiona, baina gainditu gabe Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean urte anitzeko gastu-konpromisoetarako oro har jasotakoa”.

Xedapen iragankorra. Emanik dauden dirulaguntzak.

Foru lege honen edukia aplikatuko zaie Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2 a) artikuluan xedatutakoaren babesean emanik dauden dirulaguntzei.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00063. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatu-ko Gobernua premiatzen dira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Estatu-ko Gobernua premiatzen baitira jaiotza-baimenak zabaltzera familia gurasobakarretara.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2021eko urtarrilaren 1az geroztik, jaiotzagatiko baimena 16 atsedeen-astekoa da guztira Espainian, guraso bakoitzarentzat. Gainera, aiten/amen artean bata besteari laga ezineko denbora da. Tamalez, araubide horrek desabantailan uzten ditu familia gurasobakarrak.

Ezin daiteke izan familia gurasobakarretako adingabeek eskubide gutxiago izatea bi gurasorekin hazten direnek baino. Azken horiek beren gurasoen zaintza 32 astez jaso baldin badezake, diskriminatzailea da lehenengoek 16 asteko zaintza bakarrik izatea. Tesi horixe da berriki gali-

ziar epaile batek baliatu duena bikotekiderik gabeko ama den funtzionario bati bere semearen jaiotzagatiko 32 asteko baimena aitortzeko, Administrazioak haren eskaerari ezezkoa eman ondoren. Alegia, aldeztu egiten du hark eskubidea izatea familia tradizional bateko guraso bakoitzak legez dituzten baimen-aldien batura egiteko.

Coruñako 2. zenbakiko administrazioarekiko auzietako epaitegiak bere epaian dio ezen familia gurasobakarrei baimen-metaketarako eskubidea kentzea badela halaber sexuagatiko zeharkako diskriminazio bat, ezen “emakumeek osaturiko familia gurasobakarren kopurua nabarmen handiagoa da gizonek osaturikoena baino”.

Horrela, epaileak arrazoia ematen dio emakumeari, zeina funtzionarioa baita Gobernuak Galizian duen Ordezkaritzan, eta errebotatu egiten du Administrazioak hari emandako ezezkoa, 32 aste-ko amatasun-prestazioa aitortzekoa.

2022ko otsailaren 17ko epaian Galiziako epaitegi horrek ebatzitzeko kasua gehitu egiten zaie beste batzuei, zeinetan justiziak aitortu egin baitu bikotekiderik gabeko amek eskubidea daukatela legez guraso bakoitzarentzat aurreikusitako guraso-baimenak metatzeko. Galizian, jada ebazpen-multzoko batek eman die arrazoia funtzionario diren ama batzuei.

Lehenbiziko ebazpena Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiarena izan zen, 2020koa. Orduko hartan, magistratuek errebotatu egin zuten Bilbo-ko epaitegi baten erabakia, erizain bati aitortze aldera eskubidea zeukala bere semearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko beste zortzi aste gehigarri metatzeko, kasuko prestazioaren ordainketa eta guzti. 2019an, araudiak zortzi asteko baja aitortzen zien gurasoei. “Familia gurasobakarraren aldeko hautuak ez du seme-alabatasun lotura bestelakorik tankeztatzen, adingabearen zaintza

eta arretari eta haren eskubideei dagokienez”, zioen orduan auzitegiak. Gero, autonomia erkidego desberdinetako beste auzitegi batzuek ere irizpide hori aplikatu izan dute. Esate baterako, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak, zeinak, 2021eko urriaren 13ko epaian, berretsi egin baitzuen gizarte-alorreko epaitegi baten erabakia, ama ezkongabe bati jaiotzagatiko hamabi aste gehigarri aitortzekoa. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, gurasoek hamabi asteko baimen hori zeukaten, seme-alaba baten jaiotzagatikoa. Magistratuek arrazoitu zutenez, adingabea “ezin da egoera okerrekoztat tratatua izan familia gurasobakar batean jaiotzeagatik”.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda dezan Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua, halako moldez non baimena 16 astez luzatuko baita familia gurasobakarren kasuan.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du familia gurasobakarretako gurasoentzako amatasun-baimenak luza ditzan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 28an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

10-22/MOC-00064. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraziz.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK, PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK, GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK, EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak, Patricia Fanlo Mateo andreak, Geroa Bai talde parlamentarioak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraziz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Burdin defizita osasun-problema oso prebalentea da, baina azpidiagnostikatua, espezifikotasun gutxiko sintomak ezagutzen zaizkiolako, batzuetan pertsona ukituek ondo jasanak. Alabaina, konplikazio larriak sor ditzake, batez ere gaixotasun kronikoak dituzten gaixoengan, detekzio eta tratamendu goiztiarrik egiten ez bada.

Usuago agertzen da emakumeengan menopausia baino lehenago, haurdunengan, 5 urte baino gutxiagoko adineko umeengan eta gaixotasun kronikoak dituztenengan (eritasun gastrointestinalak, bihotz-gutxiegitasuna, giltzurrun-gaixotasun kronikoa...).

Goibeldu egiten du gaixotasun kronikoen diagnostikoa, bizi-kalitatea txartzten du, eta ekartzen ditu osasungintza-kostuen gorakada eta konplikazioak, bai eta fase goiztiarrean identifikazioa egin

eta tratamendua ezarriz minimiza daitezkeen kostuak ere.

Potentzialki larriak diren ondorioak ekarri ahal baditu ere, burdin defizitak biztanleen artean oso ezaguna ez den osasun-arazoa izaten segitzen du; horrenbestez, zenbait herrialdek eta erregiok burdin defizitaren egunari izaera instituzionala eman diote, Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraraziz, zeina 2015az geroztik urtero ospatzen baita, azaroaren 26an.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Burdin Defizitaren Egunaren ospakizuna susta dezan, azaroaren 26 bakoitzean Global Iron Deficiency Day delakoarekin bat etorraraziz, Osasun Departamentuaren laguntzaz, osasun-arazo honen inpaktua ezagu-

tzearen, beraren sintomak modu goiztiarrean atzematearen eta tratamendu goiztiar bat ezartzearen garrantziaz biztanleria kontzientziatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio-kanpainak egin ditzan burdin defizitaren inpaktuari buruz, horrek ematen dituen sintomak identifikatzeari buruz eta gaixotasun kronikoak dituztenei ekarri ahal dizkien konplikazioei buruz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriazko ekintzak egin ditzan Osasun Departamentutik, burdin defizita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan goiztiarki identifikatu eta tratatzeko.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Foru parlamentariak: Cristina Ibarrola, Patricia Fanlo, Txomin González, Ana Ansa, Mikel Buil eta Marisa De Simón

10-22/MOC-00066. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriemaile gazteen programa bultzatzearen gure Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriemaile gazteen programa bultzatzearen gure Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan..

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriemaile gazteen programa bultzatzearen gure erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta lanbide heziketako ikastetxeetan.

Berriemaile gaztea da bere aisiaren parte bat borondatez erabiltzen duena ikastetxeetan beste gazte batzuei informazioa emateko, gazte informazioko zentro edo bulego batekin lankidetzan.

Berriemaile gaztearen ezaugarri nagusia da gazteak gazteari informazioa helaraztea eta bere ikaskideen informazio-eskariak jasotzea, gazteentzako informazio bulegoari haien berri eman eta, halatan, gaztearen eta gazteentzako informazio sistemaren arteko lehenbiziko elkarrizketa sortu ahal izateko.

Berriemaile gaztearen zeregina borondatezkoa da, eta informazio-biderkatzearen efektua sortzen du. Figura horren bidez asmoa ez da mezulari izatea, baizik eta informazio-helarazle gisa bi norabidetan jardutea: diharduen eremuan gazteek dituzten kezkek eta lehentasunak zein diren jakin, eta haiei beste gai horiei buruzko informazio zehatza ematen saiatu.

Alde horretatik, informazio-zeregin muntadun hori Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxe guztietaraino eraman behar da, ikastetxeak topagune masibo bat baitira gazteen-tzat; horregatik, topaleku eta informazio-gune perfektuak bihurtzen dira.

Gazteentzako informazio guneak ezartzeko lana modu bat gehiago da, gazteei tresnak eskuratzen dizkiena errealitatea ezagutzeko, errealitatearen eraldaketan parte hartzeko eta, gaine-

ra, Foru Komunitatearen luze-zabalean gazteen-tzat dauden baliabide, zerbitzu eta jarduera guztien berri izateko.

Hezkuntza da oinarria gizartean, erkidegoan parte hartzeko. Gazteria informatua eta inplikatur egoteak eragin positiboa dauka, gizarte zibil kritikoagoa tankeratzen duelako, afera publikoetan parte-hartzaileagoa, eta horrek ekarriko du gure sistema demokratikoa indarturik ateratzea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriemaile gazteen programa bultzatzean gure Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

10-22/MOC-00067. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bultzalana egin dezan Nafarroako aterpetxeek Espainiako Gazteen Aterpetxeen Espainiako Sarearekin bat egin dezaten.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bultzalana egin dezan Nafarroako aterpetxeek Espainiako Gazteen Aterpetxeen Espainiako Sarearekin bat egin dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezartzen duenaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez premiatzen baita bultzalana egitera, Nafarroako aterpetxeek bat egin dezaten Gazte Aterpetxeen Espainiako Sarearekin, halatan Foru Komunitatean sare erreal eta osatu bat ezartzearren, gazte-aterpetxe jarduna sustatzeko.

Gazte Aterpetxeen Espainiako Sarea (REAJ-Red Española de Albergues Juveniles) Espainia osoan 300 aterpetxe baino gehiago biltzen dituen sarea da. Besteak beste bilatzen du gazteei ostalua eskaintzea, gazte-jarduerak erraztea eta modua ematea elkarbizitzarako eta esperientzia partekatutako trukatzeko.

Gazte-aterpetxe jarduna aukera bat da gazte-partaidetza sustatzeko, eta gazteei zerbitzu bat ematen die, modua ematen diena gazte-erakundeen jarduerak egiteko gune eta erabilgarritasunak eskuratzeko.

Gainera, REAJek gazteen mugikortasun eta ongizatearekin zerikusia duten zenbait ekimen gauzatzeko; adibidez, nazioarteko aterpetxeekiko truke-programak edo programa naziona-

lak, autonomia erkidego desberdinekiko lankidetzan, MOVIC proiektuaren gerizpean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Bultzalana egin dezan Nafarroako aterpetxeek Gazte Aterpetxeen Espainiako Sarearekin bat

egin dezaten, gazte-aterpetxe jarduna sustatze aldera sare erreal eta osatu bat ezar dadin Foru Komunitatean.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

10-22/MOC-00068. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira arduraz jokatu eta inbertsioen lehentasunak, bereziki Abiadura Handiko Trenaren proiektuari dagozkionak, birpentsa ditzaten.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira arduraz jokatu eta inbertsioen lehentasunak, bereziki Abiadura Handiko Trenaren proiektuari dagozkionak, birpentsa ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentariokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, arduraz jokatzearen eta inbertsioen lehentasunak, bereziki Abiadura Handiko Trenaren proiektuari dagozkionak, birpentsatzearen beharra dela-eta.

Azken asteotan berriz ere sortu dira eztabaida publikoak AHTaren ezaugarriei eta balizko ibilbideari buruz; bitartean, berresten ari da garraio mota hori bidaiariak eramatera mugatuko dela,

Burgos-Gasteiz behin betiko proiektuarekin egiaztatu ahal izan den moduan, salgaien garraioa bazter uzten baitu.

Gobernuen eta indar politikoen ardura da errealitatea aztertu, etorkizunerako aurreikuspenak egin eta gehiengo sozialen interesak defendatzeko konponbideak proposatzea. Gauzak horrela, egiaztatzen dugu zentzurik eta etorkizunik gabeko proiektu bat eraikitzen jarraitzen dela.

Gogoan eduki behar dugu bizi dugun testuinguru sozioekonomikoa, jasaten ari den eraldaketa sakonekin eta etorkizunera begira ikusten direnekin: krisi ekonomikoa, inflazioa, Ukrainako gerra, erregai fosilen urritasuna eta garestitzea, klimaldaketa —dakartzan ondorio guztiekin—, trantsizio energetiko ekidinezina, industriaren robotizazio eta digitalizazioa, goseteek eta gerrek eragindako migrazio handiak... Den-dena birpentsatu behar da, inbertsioen arloko politikatik hasita, bermatze aldera osasun, hezkuntza eta zaintzako sistemak, eta bereziki aberastasuna banatzeko eredu eraldatzaile bat, herritarren ongizatearen bermea izan daitezen.

Bizi ditugun eraldaketek lekua eduki behar dute lehentasun politikoetan eta proiektatu beharreko inbertsioetan. Atzean utzi behar ditugu porlana, espekulazioa, naturaren aurkako azpiegitura eta ustiapenak eta, oro har, desberdintasun soziala areagotzen duen sistema bat oinarri duten politikak.

Beharrezkoa da, beraz, errealista eta zentzudun izatea, inongo justifikaziorik ez duen proiektu bat geldiarazteko. Ez du beteko egozten zitzaion eginkizuna, ez du inongo ardatz ekonomi-

korik lotuko, ez du salgaririk garraiatuko, ez dio mesederik egingo lurralde- eta gizarte-kohesioari.

Arduraz jokatzek eskatzen du proiektu horretan xahutzen ari diren milioiak beste inbertsio batzuetan, ezinbestekoak eta presakoak direnetan, erabiltzea. Lehentasunak honako hauek ditugu: osasun sistema hobetzea, lurraldearen antolamendua berritzea (besteak beste, azken sute handiek agerian utzi dituzten gabeziak konpontzeko), industria birsortzeko politika, lanpostu duinak sustatzeko, zaintzako sistema publiko bat abiaraztea, etxebizitzaren arazoa konpontzea...

Beste alde batetik, tren bidezko garraioa errealitate sozial eta ekonomikora egokitzeko beharra dago, lurralde- eta gizarte-kohesiorako parametroetan. Badira aukera bideragarriagoak eta errentagarriagoak, ikuspegi ekonomiko eta sozialetatik. Ildo horretan, trenbidearen arloko sindikatu guz-

tiek eta Nafarroako trenbidearen aldeko plataformak proposamen tekniko bat egin dute, oraingo trazadura bide bikoitzarekin egokitu eta hobetzeko, era horretan bidaiarietarako zein salgaietarako tren guztiak igarotzea ahalbidetuz.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu, ukitutako administrazioak baitira, arduraz joka dezaten, AHTaren obren moratoria bat ezarriz, gehiengo sozialen beharrezanekin bat datozen lehentasun justifikatuak ezartzeko, hau da, inbertsioen politika birpentsa dezaten.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/MOC-00069. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean zerga erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, PFEZaren kargen eskalako likidazio oinarrien deflaktazioa, inflazioaren arabera, edukiko duena.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean zerga erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, PFEZaren kargen eskalako likidazio oinarrien deflaktazioa, inflazioaren arabera, edukiko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, irailaren 8ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2022ko uztailan KPIaren igoera % 10,8koa izan da Espainian eta % 11,4koa Nafarroan. 1984az geroztik inflazioaren datu ofizial altuena da (Estatistikako Institutu Nazionala).

Azken urtean Nafarroan prezioak % 30,3 igo dira etxebizitzan, % 16,5 garraioan eta % 13,2 elikagaietan.

Aldi berean, Espainian soldaten eta KPIaren arteko aldea maximo historikoraino iritsi da.

Uztailan inflazioa % 10,8raino iritsi zen bitartean soldatak, hitzarmen kolektiboen estatistikaren arabera, % 2,56 baino ez ziren igo. Inflazioaren eta soldaten arteko arraila 8 puntutik gora geratu da.

1984an, KPIa % 11,3 igo zenean, soldatak % 7,8 igo ziren. Aldea 3,5 puntukoa izan zen; gaurkoak, ordea, zenbateko hori aise bikoizten du.

Inflazio altuaren gehi soldaten igoera ahularen ondorioa da herritar gehienak larriki pobretzea, haien erosahalmena nabarmen murrizten ari baita.

Horren aurrean gobernuek presako neurriak hartu behar dituzte arlo desberdinetan, elikagaiak bezalako oinarriko produktuen prezioen kontroletik PFEZaren deflaktazioa bezalako neurri fiskalera-raino.

Inflazio altuak dakar nafar gehienak pobreagoak izatea, erosahalmena galtzen dutelako. Baina Nafarroako Gobernuak PFEZa deflaktatu ezean pobretze hori ez da kontuan hartuko 2023an errentaren aitorpena egiten dutenean.

PFEZaren diru-bilketa batez ere lanaren errentetatik iristen denez, haren deflaktazioa guztiz neurri beharrezkoa da une honetan, Nafarroako herritar askoren narriadura ekonomikoa ez areagotzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean zerga erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, PFEZaren kargen eskalako likidazio oinarrien deflaktazioa, inflazioaren araberakoa, edukiko duena.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-22/MOC-00070. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean Sozietateen gaineko Zergaren erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, haren diru-bilketaren igoera esanguratsua ekarriko duena.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean Sozietateen gaineko Zergaren erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, haren diru-bilketaren igoera esanguratsua ekarriko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako kontu publikoek islatzen dutenaren arabera azken 20 urteotan zerga ezberdinen diru-bilketak bilakaera larria izan du Nafarroan, desoreka gogorra sortzeraino, lan-errenten kalterako eta enpresa-etekinen mesede oso handirako.

PFEZaren diru-bilketa igaro da 2000n tributu bidezko diru-sarrerara guztien % 29,7 izatetik 2021ean % 39,4 izatera. Sozietateen gaineko Zergaren diru-bilketa, berriz, 2000n % 13,4 izatetik igaro da 2021ean bakarrik % 7,6 izatera.

PFEZagatiko diru-bilketa 2000ko 629,6 milioietatik 2021eko 1.644 milioietara igo da. Sozietateen gaineko zergarena, 2000ko 285 milioietatik 2021eko 320 milioietara igaro zen. Hau da, Sozietateen gaineko Zergarekin alderatuta PFEZagati-

ko diru-bilketa handiagoa 2000ko 344 milioietatik 2021eko 1.323 milioietara igaro zen.

Diru-bilketa fiskalari PFEZaren bidetik eginiko ekarpenaren (gehiena, lan errentak) eta Sozietateen gaineko Zergaren bidetik (enpresa-etekinak) egindakoaren arteko desoreka gero eta handiagoa, bere horretantxe, bidegabekeria fiskal agerigerikoa da, murriztu ez, areago, urtez urte igotzen dena. Hala ere, Nafarroako Gobernuaren jarrera, oraingo legegintzaldian iragandako hiru urteetan zehar, izan da Sozietateen gaineko Zerga sakonki ez aldatzea guztizko diru-bilketari egiten dion ekarpena igotzeko.

Horregatik aurkezten dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean Sozietateen gaineko Zergaren erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, haren diru-bilketaren igoera esanguratsua ekarriko duena.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-22/MOC-00071. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa bete dezala.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa bete dezala.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Joan den uztailan, Nazioaren egoerari buruzko Eztabaidan, Estatuko Gobernuko lehendakari Pedro Sánchezek iragarri zuen sarri onetsiko zire-

la finantza-entitateen eta energia-konpainia handien gaineko aldi baterako zerga bana, bi urtetan 7.000 milioi euro inguru biltzeko asmoarekin.

Bankuen gaineko hasierako horri dagokionez, argudiatzen zuen salbuespeneko eta aldi baterako zerga bat zela, helburu zituena "finantza-entitate handiak, interes-tasen igoerarekin onura lortzen hasi diren horiek". Zehaztu zuenaren arabera, zergaren iraunaldia bi urtekoa izango zen, 2022 eta 2023ko ekitaldiak, eta 1.500 milioi euro lortuko ziren urtero.

Beste alde batetik, elektrizitate, gas eta petrolioaren sektoreko talde nagusien gaineko zerga indarrean egongo litzateke 2023 eta 2024an, asmoa izanik urtero 2.000 milioi biltzea enpresa horien 2022 eta 2023ko aparteko mozkinetatik.

Egunetan zehar iragarpena zehaztu egin zen eta, azkenean, uztailaren 28an Alderdi Sozialista eta Unidas Podemos talde parlamentarioek Diputatuen Kongresuan lege-proposamen bat erregistratu zuten, "aldi baterako kargak jartzeko, energiaren arlokoak eta kreditu-entitate eta kreditu-entitate finantzarioen arlokoak".

Lege-proposamenean azaltzen da zer bide zehatz erabiliko litzatekeen zerga horiek aplikatzeko, zerga gisa definitzen ez direnak, baizik eta tributukoa ez den ondare-prestazio publiko izenarekin; era horretan Estatuak zuzenean kudeatzen ahal du, Nafarroako Gobernuarekin Hitzarmen

Ekonomikoaren bidez aldez aurretik hitzartu behar gabe, zerga sortu berri guztiekin gertatzen den bezala. Zerga sortu berrien adibide guztiz hurbilak ditugu, esate baterako Google eta Tobin deitutako tasak, Hitzarmenean sartu behar izan zirenak, hura aldez aurretik aldatuta, jakina. Aste honetan bertan, Gobernuak ontzat eman zuen bi zerga sortu berri horiek, beste gai batzuekin batera, biltzen zituen aldaketa.

Gure erkidegoaren eskumenetan sartzten da argi eta garbi, Hitzarmena bazter utziz “prestazio publikoaren” legezko aterki balizko hori baliatuta. Parlamentu honek, Nafarroaren subiranotasuna-

ren ordezkari gisa, salatu egin behar du egitate hori.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa betetzea, halako moduz non sortzen diren zerga berriak esparru horretan sartuko diren eta Foru Komunitatean kudeatu ahalko diren.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-22/MOC-00072. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da PFEZaren tarifa deflakta dezan.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita PFEZaren tarifaren deflakta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Gaur egungo datuen arabera Espainiak abuztuan aurreratutako datuan erregistratutako urtearteko inflazio tasa % 10,4koa da, eta azpian dago-

ena 3 hamartar igo da, % 6,4raino. Horrekin berretsi egiten dira azken datuak, zeinek agerian uzten duten iaiztik pairatzen ari garen inflazioaldiaren intentsitatea eta iraunkortasuna, Covidaren ondoko suspertzearen desoitzeek sortuta eta geroago larriagotuta Errusiak Ukraina inbaditu izanarekin lotutako ziurgabetasunagatik eta energiaren garestitzeagatik eta klimatologia guztiz txarraren baitan elikagaiak garestitzeagatik.

Inflazioa kanpoko faktoreek zein zerga-politika-ko erantzun desegokiek sortua denez, premiazkoa da ondorioei —Nafarroako gizartea, oro har, pobretzea dakartenez— aurka eginen dieten neurriak hartzea. Egoera honetan, halaber, hura larriagotuko duten neurriak saihestu behar dira. Beraz, bidezko da erosahaltenaren galera hori banatzea gure ekonomiako eragile guztien artean. Ildo horretatik, Navarra Sumak parlamentu-proposamen batzuetan adierazi duen bezala eta beste administrazio batzuek hartutako neurriekin bat, Gobernuak ere ahalegin bat egin behar du. Izan ere, jarduteko aukera gehiago dauka aurrekontu eta zerga arloetan, hain zuzen ere inflazioari esker, ahalbidetu duelako tributu askoren zerga-oinarria igotzea, eta horren ondorioz, diru-bilketa ere bai.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, PFEZko tarifaren deflaktazioa har dezan, gutxienez ere

EAEko foru diputazioek onetsitakoaren parekoa, 2022an jada aplikatzekoa.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros
Erro

10-22/MOC-00073. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da erretira dezan “Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plana” onetsi eta “Nafarroako agroestepak” izene-ko babes bereziko eremua izendatzen duen foru dekretuaren proiektua.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erretira dezan “Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plana” onetsi eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua izendatzen duen foru dekretuaren proiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2022ko ekainaren 10ean Nafarroako Gobernuak argitara eman zuen gobernu irekiaren gardentasun-atarian foru dekretuaren proiektu bat, Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko, “Nafarroako agroestepak” izene-

ko babes bereziko eremu bat (HBBE) deklaratu. Atarian zehazten denaren arabera, horretarako prozesua 2022ko urriaren 9an bukatuko da.

Aipatu proiektua foru dekretu gisa onetsiz gero, neurri erabat negatiboa, proportziorik gabea eta behar ez dena izanen da, zuzeneko eraso egiten diona lurzoru pribatuen eta toki entitateen lurzoruen erabilera orori eta jabeak inongo aukerarik gabe utziko dituen lurzoruen erabilera erabakitzerakoan, besteak beste ekonomia, nekazaritza, abeltzaintza, energia berriztagarriak eta ehiza arloei begira.

Proiektuak hogeita hiru eremu berri sortzen ditu, Nafarroan babes bereziko eremu (HBBE) berri bat eratzen dutenak, lurreko ia 100.000 hektarea egiteraino.

Foru dekretuaren proiektu hori ez da inola ere tresna egokiena, jabetza pribatuko eta toki entitateen jabetzako lurren gainean muga, murrizketa eta debeku asko asko biltzen dituelako, batere konpentsaziorik gabe. Egoera hori ez da onargarria gure antolamendu juridikoan, eta ez dator bat Europako araudiarekin ere. Gainera, Nafarroako Espezie Mehatxatuen Katalogoa baliatzen du, epaitegiek deuseztatu duten hori.

Era berean, ez dituzte kontuan hartu HBBE horrek ukitutako udalerrak eta eragile ekonomikoak, zeinei ez diten informaziorik eman. Halaxe berresten dute ekarpenak egiteko prestatutako gunean agertzen diren 46 alegazio-txostenek.

Foru dekretuaren proiektu horrek ez du justifikaziorik, aurka egiten dielako ekimen eta jarduera ekonomikoen eta ingurumenaren babesaren arteko bizikidetzaren sustatzeko politikari —neurri moder-

noak, egokiak eta Nafarroako landa arloarekin adostuak garatuz—, eta hura onesteak aukerak eta erkidego mugakideekiko lehiakortasuna galtzea ekarriko digu.

Proiektu hori onesten badu, Nafarroako Gobernuak are oztopo gehiago gehituko dizkie egun leku ekonomikoki erakargarria izateko daudenei, eta zuzeneko eraso eginen die Nafarroako Ubi-deko lehenengo faseko zabalpena garatzeko eremuei eta bigarren faseko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, erretira dezan “Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plana” onetsi eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua izendatzen duen foru dekretuaren proiektua.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-22/MOC-00074. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negozia eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negozia eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

CCOO sindikatuak berriki salatu du Lanaren Ministerioak argitaratzen dituen lan-istripuek Nafarroan erakusten duten egoera kezagarria. 2022ko lehen seihilekoan Nafarroak erregistratutako lan-istripuak (lanaldietan eta lantokirako joan-

etorrietan) % 13,33 gehiago izan ziren 2021eko aldi berekoak baino.

10.000 langileko intzidentzia-tasa 312,7 izan zen, Estatuko batez betekoa (5.945 istripu arin, 63 larri eta 8 hilgarri) baino 76 puntu gehiago. Nafarroa da erregistro txarrenak dituzten erkidegoetatik bosgarrena.

Egoera hori onartezina da eta erantzun urgentea eskatzen du Nafarroako Gobernuaren, enpresaburuaren eta sindikatuen aldetik ere.

Enpresaburuak dira laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia betetzearen arduradun nagusiak. Hortaz, datu horiek lehenik eta behin enpresaburuaren erantzukizunari eragiten diote. Baina erantzun urgentea behar da gobernuen eta gizarte eragilearen aldetik ere.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea zorrotz betetzea bermatu behar da, eta horretarako ezinbestekoa da Lan Ikuskatzailtza beharrezkoak diren baliabidez hornitzea.

Izan ere, baliabideak eta plantilla ez dira aski, modu nabarian, eta sindikatuek mobilizaziora jo dute 2022an hori salatzeko. Joan den martxoan, Nafarroako sindikatuek salatu zutenaren arabera, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtza “baliabide material eta teknikoen defizitaren metaketak bere jarduera porrotaren mugaraino eraman du”.

Nafarroan hogeita hamarren bat lan ikuskatzaile baino ez dira lanean ari. Kopuru hori gu-

txiegi da, nabarmen, lan arloko legeriaren bete-
ztearen gaineko kontrol eraginkorra egiteko

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau
aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du Nafarroako Lan Osasu-
naren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-
istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osaga-
riak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako
Gobernua premiatzen du, Lan Ikuskatzailtzak
Foru Komunitatean dituen baliabideak eta plantilla
handitu ditzan, kontrol handiagoa bermatze aldera
enpresek laneko arriskuen prebentzioaren arloko
legeria betetzeari dagokionez.

Iruñean, 2022ko irailaren 1ean

Eleduna: Marisa de Simón Caballero

10-22/MOC-00075. Mozioa. Horren bidez, Nafarroan banku publiko bat sortu beharra dagoela erabakitzen da.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko
irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batza-
rrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu
zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra
talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa,
zeinaren bidez Nafarroan banku publiko bat sortu
beharra dagoela erabakitzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta
zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari
ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko
hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko
eledun Marisa de Simón Caballero andreak,
Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren
babesean, honako mozio hau aurkezten du,
Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Kutxa zen Nafarroan ekonomia-
nahiz banku-jarduera handiena zeukan finantza
entitatea; Nafarroako familiei eta gizarte- eta
enpresa-sarearekiko konpromiso sendoa zeukan,
Nafarroako Gobernuak kontrolatutako interes
publikoko entitate bat baitzen.

Kutxa desagertu zenean hutsune bat geratu
zen, al bait azkarren bete beharko litzatekeena

Nafarroaren garapen sozialaren eta ekonomiko-
aren mesedetan.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak helburu
lehenetsi modura hartu beharko luke Nafarroaren
garapen sozial eta ekonomikoaren nahiz Nafarro-
ako produkzio-sarearen zerbitzuan jardunen duen
banku publiko bat bezalako finantza-tresna publi-
ko bat berreskuratzea.

Banku-sektore pribatuak ez die erantzuten
gure gizarteko sektore garrantzitsu askoren finan-
tzaketa-premiei.

Hori da familia eta gazte askori gertatzen zaie-
na, ukatu egiten baitzaie etxebizitza bat erosteko
finantzaketa, edo baita jarduera bat abiarazi nahi
duten autonomoei edo ekintzaileei ere.

Banku publiko bat berreskuratzeak, halaber,
lehia ezarriko lioke 2008an hasitako krisitik heldu
den banku-oligopolio pribatuari. Oligopolio hori
milaka pertsonari ari zaie ixten edo larriki zailtzen
banku zerbitzuetara iristea, bulegoak itxiz, arreta
presentziala gero eta gehiago mugatuz eta abu-
suzko banku-komisioak ezarritik.

Horra banku publiko bat berreskuratzeak, eta
azkar berreskuratzeak, arrazoiak.

Juridikoki bideragarria da, Nafarroako Gober-
nuak joan den legegintzaldian eskatu zuen
txostenak frogatu zuenez. Behar dena borondate
politikoa da.

Eta jakin nahi dena baldin bada ea zer funts
baliatuko den Nafarroan banku publiko bat
kapitalizatzeak, hona erantzuna: Nafarroako Ku-
txa mailegu-entitate gisa desagertzeko prozesutik
heldu den hondar-ondarea balia daiteke horreta-

rako. Ondare handia da, ehunka milioi eurokoa, Nafarroako gizartearena dena eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxa Fundazio Bereziaren bidez kontrolatzen duena. Hortaz, ondare publiko bat da, Nafarroako Gobernuak Nafarroan banku publiko bat abian jartzeko balia dezakeena.

Horregatik aurkezten dugu erabaki proposamen hau:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzura lan egingen duen Banku Publikoa sortu beharra dagoela Nafarroan, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du helburu hori lehenbailehen gara eta bete dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 1ean

Eleduna: Marisa de Simón Caballero

10-22/MOC-00076. Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharkako neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharkako neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroan erregistratu diren hilabeterik beroenak pairatu ondoren, udan gelditu den hilkortasun

saldoak uzten duen gehiegizkoa da 150 heriotzarena, elkarren ondoko bero olatuek sortuak. Zifra horrek esponentzialki gaintzen du Espainiako, non hiru bero olatuek 5.000 heriotza ekarri duten uda honetan, Espainiako Epidemiologia Elkartearen arabera. Aipatu elkarteak ohartarazten duenez, tenperatuen etengabeko igoera beharbada herritarren osasuna higatzen ari da, modu ikusezinean.

Bere urteroko biltzarrean Espainiako Epidemiologia Elkarteak errotik aurkeztu du inguruneak duen garrantzia, beroaren ondorioak arintzerakoan. Honako alderdi garrantzitsu hauek azpimarratzen dituzte: berdeguneak gertu egotea, etxebizitza egokia edukitzea, aire egokitua —pertsonek alde aurreko patologiek arriskuko egoeran jartzen dutenean—, itzalak hirietan —bertako tenperaturak gehiago igotzen direlako asfalto zein hormigoiatatik— eta beste neurri asko, prebentziokoak eta zeharkakoak.

Egiaztatzen ari garen moduan, Nafarroa erkidego oso zaugarria da klima larrialdiari begira. Hortaz, egokitzapen azkarra behar dugu. Gainera, gure erkidegoa oso anitza da ingurumenaren aldetik eta alde handiak daude hiri eremuaren eta landa eremuaren artean. Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharka-

ko neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera.

Iruñean, 2022ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-22/MOC-00077. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen da departamentuekin koordinatuta lan egin dezan gazteei zuzendutako neurri urgenteen sorta bat ezartzeko, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harreman afektibo-sexualen gainean hezi eta prestatze aldera.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen baita departamentuekin koordinatuta lan egin dezan gazteei zuzendutako neurri urgenteen sorta bat ezartzeko, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harreman afektibo-sexualen gainean hezi eta prestatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Indarkeria matxistaren inguruan Nafarroako Berdintasunerako Institutuak aditzera eman dituen azken datuak ikusita, egiaztatzen ahal da iazko salaketa kopuruarekin alderatuta % 6,3ko igoera izan dela. Aztertu beharreko beste datu kezgarria da sexu-indarkeriaren biktima diren adingabeen portzentaje altua; hain zuzen ere salaketa guz-

tietatik % 47 adingabeengandik iristen dira. Portzentaje altu horrek frogatzen du gazteen arteko harreman asko genero-desberdintasunean eta balio matxistetan oinarritzen direla.

Bi arrazoi daude, gazteen artean salaketak areagotzea justifikatzen dutenak; alde batetik, gerta daiteke indarkeria matxistaren kasu gehiago azaleratzen ari direla adingabeen artean. Beste arrazoiak da salaketa gehiago egotea, besterik gabe, eta salaketa publiko horien zergatia izatea adingabeengan kontzientzia handigoa izatea. Edonola ere, datuak kezkarriak dira eta errealitate horren aurrean ekin beharra dago, salatzeko arrazoiak zein diren ere, adingabeen artean indarkeria matxistaren kasuak gutxiago izan daitezten.

Desberdintasunaren eta indarkeria matxistaren kasuak murrizteko eta desagerrarazteko elementu nagusietako bat da inbertsioa egitea hezkidetzan, prestakuntza eta kontzientziazio onean. Hori da edozein gobernuak bilatu beharreko helburua, erai-ki nahi badu gizarte berdinezaleago bat, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatuko dituen. Adin goiztiarretan inbertitzen bada hezkuntzan, kontzientziazioan eta prestakuntzan, emakumeen eta gizonen arteko errespetu eta berdintasunean oinarritutako balioen aldatetan, sentzibilitatea handituko da eta indarkeria matxistak murriztuko dira etorkizunean.

Nafarroan Skolae programa dugu, berdintasunean hezteko beharrekoa dena. Baina Skolae une hauetan garapen eta ezarpen prozesuan dago, hezkuntza maila guztietan egoteko. Horren ondorioz, haur etaparen ondoko hezkuntzako goi zikloetan dauden ikasleetatik askok ez dituzte programako eduki guztiak bere osotasunean jasoko. Hezkuntzako azken mailetako ikasleek, gazteek,

programaren ezagutza oso partziala jasoko dute, besterik ez.

Kontuan hartuz hezkuntza etapa horietan daudela salaketen % 48 osatzen duten gazteak, agerikoa da egungo prestakuntza indartu behar dela. Komenigarri da administrazioak prestakuntzako eskaintza osagarri bat zuzentzea Nafarroako gazteei Skolae programa osoa ezartzen den arte, helburu izanen duena indarkeria matxista geldiaraztea eta murriztea.

Horiek horrela, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen du, koordinatuta lan egin dezan departamentuekin, batez ere Gazteria, Hezkuntza eta Kulturarekin, gazteei zuzendutako neurri urgenteen sorta bat ezartzeko, hezkuntzako esparru formalean zein ez formalean berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harreman afektibo-sexualen gainean hezi eta prestatze aldera, indarkeria matxistak desagerraraziko baitituzte.

Iruñean, 2022ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

10-20/MOC-00086. Mozioa Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia- tzen da errepide-politika berrikus dezan eta Bide Azpiegituren aldeko Nafarroako Ituna lortzeko lan egin dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen zen errepide-politika berrikus zezan eta Bide Azpiegituren aldeko Nafarroako

Ituna lortzeko lan egin zezan, eta 2020ko irailaren 11ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-20/MOC-00129. Mozioa Horren bidez, Hezkuntzako eta Lanbide Hezi- ketako Ministerioa premia-tzen da modu argi eta zehatzean adieraz di- tzan hezkuntza maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioa premia-tzen zen modu argi eta zehatzean adieraz zitza hezkuntza

maila bakoitzerako mailaz igotzeko eta titulua emateko irizpideak, eta 2020ko azaroaren 10eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-21/MOC-00082. Mozioa Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da Donejakue 2021 Plan Globalean beharrezkoak diren jarduke-
tak zorroztasunez eta epean egin ditzan.**

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da Donejakue 2021 Plan Globalean beharrezkoak diren jarduketak zorroz-

tasunez eta epean egin ditzan, eta 2021eko apirilaren 30eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-22/MOC-00030. Mozioa Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin
bilera egin dezan lan-mahai urgente batean, inpaktuak neurtzeko eta
Nekazaritza Politika Erkide berri bat taxutzeko.**

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen zen nekazaritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta ekoizleekin bilera egin zezan lan-mahai urgente batean, inpak-

tuak neurtzeko eta Nekazaritza Politika Erkide berri bat taxutzeko, eta 2022ko martxoaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00037. Mozioa Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile aktiboa izateko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile akti-

boa izateko, eta 2022ko apirilaren 1eko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00060. Mozioa Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da bat egin dezan Aragoirekin batera proposatutako Pirinioetako hautagaitzarekin, Neguko Olinpiar Jokoetarako.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da bat egin dezan Aragoirekin batera proposatutako Pirinioetako hautagai-

tzarekin, Neguko Olinpiar Jokoetarako, eta 2022ko ekainaren 21eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-21/MOC-00125. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Daniel Ortégaren gobernu sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldeztu.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadin Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Daniel Ortégaren gobernu sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepre-

sioa, eta nikaraguarrei dei egiten baitie etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldeztu. Mozioa 2021eko ekainaren 29ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00020. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-tzen da banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako

gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan. Mozioa 2022ko otsailaren 25eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-22/DLF-00003. 3/2022 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, aldatzen duena apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 3/2022 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, aldatzen duena apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Foru Lege-dekretua 2022ko abuztuaren 26ko 170. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dio, baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, honako hau ERABAKIDA:

1. Xedatzea 2022ko irailaren 22ko Osoko Bilkuran eginen direla abuztuaren 17ko 3/2022 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege-dekretu horren bidez aldatzen da apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

3/2022 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, aldatzen duena apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko

1/2022 Foru Lege-dekretua onetsi ondoren, zeinaren bidez aparteko neurriak ezarri baitziren kontratazio publikoaren esparruan, bereziki 12 hilabetetik gorako iraupena duten obra-kontratuen prezioen aparteko berrikuspena, ikusten da, hala ere, egungo egoera ekonomikoaren inpaktuak, prezioen hazkunde azeleratuarekin, iraupen laburragoko kontratuetan ere eragiten duela. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da inguruabar hori sartzeari aparteko berrikuspen-sisteman. Kontratuaren iraupena hamabi hilabete baino gutxiagokoa bada, kostuaren igoera kalkulatu da kontratuaren zenbateko ziurtatu guztien gainean; hala ere, prezioen salbuespenezko berrikuspen hori aplikatu ahal izateko, kontratuaren iraupena lau hilabeteak izan behar dira gutxienez. Gainera, komeni da testua zenbait puntutan argitzea, haren segurtasun juridikoa hobetzeko. Neurri horiek presaz hartu behar dira; izan ere, aipatutako foru lege-dekretua aplikatzen ari da, eta salbuespenezko berrikuspena aplikatzen ez bada, kontratu horien gauzatzea geldiarazteko arriskua dago, eta, horren ondorioz, interes publikoari kalte egiteko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita biko abuztuaren hama-

zazpian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritz,

DEKRETATZEN DUT:

Lehenengoa. Aldatzen da apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Horrenbestez, 17. artikulua testu hau izanen du:

17. artikulua. Kontratastari prezioen salbuespeneko berrikuspenera onartzeko baldintzak.

Salbuespen gisa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen mendeko erakundeek adjudikatutako obra-kontratu publikoetan, kontratastari onartuko zaio prezioen salbuespeneko berrikuspenera egiteko aukera, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

a) Kontrata egoera hauetakoren batean egoitea:

a.1) 2022ko martxoaren 2an lizitazioan, adjudikazioan, formalizazioan edo exekuzioan egotea. Ondorio horietarako, ulertuko da kontratu bat gauzatzen ari dela azken ziurtapena onartu ez den bitartean.

a.2) Kontratuaren adjudikazioaren edo formalizazioaren iragarkia urtebeteko epean argitaratzea, 2022ko martxoaren 2tik aurrera, Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

a.3) Kontratuaren lizitazioaren iragarkia urtebeteko epean argitaratzea, 2022ko martxoaren 2tik aurrera, Nafarroako Kontratazioaren Atarian, eta baldintza-agiriak prezioen berrikuspenerako formula bat ezartzea.

b) Material siderurgikoen, material bituminosoen, aluminioaren edo kobreakosten kostuaren igoerak, adierazitako aldietan, ehuneko hauek gainditzea:

b.1) 12 hilabete edo gehiagoko iraupena duten kontratuarako: kontratuaren zenbateko ziurtatuaren %5, honela kalkulatu: epe horretan berean ziurtatzen diren kontratuaren zenbatekoei prezioen berrikuspenerako formula aplikatuko zaie, halakorik balego, eta halakorik ezean, obren izaeragatik dagokiona aplikatuko zaie, urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretuan ezarritakoen artetik (1359/2011 Errege Dekretua, urriaren 7koa, Administrazio Publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko obra-kontratuaren eta hornidura-kontratuaren prezioen berrikuspenerako oinarritzko materialen zerrenda eta ereduako formula orokorrak onartzen dituen).

Kalkulua egiteko, kontuan hartuko da kontratatutako eskabidean zehazten duen aldia; epe hori ez da 12 hilabetetik beherakoa izanen, ezta 24 hilabetetik gorakoa ere, eta, nolahi ere, 2021eko urtarrilaren 1aren ondorengoa izango da.

b.2) 4 hilabete edo gehiago eta 12 hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuarako: kontratuaren zenbateko ziurtatu guztien %5.

Igoera hori kalkulatzeko, kontratuari aplikatu beharreko formulatik kendu egingen dira lehen aipatutakoek bestelako kostu-elementuak adierazten dituzten terminoak, eta kontratuaren prezioaren frakzio berrikusezina adierazten duen termino finkoa gehituko da, ezabatutako terminoen koefizienteen balioa adina –hartara, mantendutako koefiziente guztien gehi termino finkoaren batura izanen da unitatea–.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren foru agindu bidez, beste material batzuk ezartzen ahaliko dira, baldin eta horien kostu-igoera aurreko ondorioetarako ere kontuan hartu behar bada.

Bigarrena. Aldatzen da apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Horrenbestez, 19. artikulua testu hau izanen du:

19. artikulua. Salbuespeneko berrikuspenera kalkulatzeko irizpideak.

1. Berrikuspen horren ondoriozko zenbatekoa kontratuari dagokion kasuaren arabera kalkulatu da:

a) Obra-kontratuaren administrazio-klausula partikularren agiriak prezioak berrikusteko formula bat ezartzen duenean, zenbateko hau onartuko da:

Ondoren zehaztutako moduan aldatutako berrikuspen-formula horren aplikazioaren ondoriozko igoera, 2021eko urtarrilaren 1etik –edo aurreneko ziurtapenetik, geroagokoa bada–, harik eta baldintza-agirian aurreikusitako berrikuspenera eragingarria izan daitekeen unera arte.

Formulan aldaketa hauek txertatu behar dira:

1) Ezabatu egingen da energiari dagokion kostu-elementua ordezkatzen duen terminoa.

2) Handituko da termino finkoa, kontratuaren prezioaren frakzio berrikusezina adierazten duena, ezabatu den terminoaren koefizientearen balioa adina, eta, hartara, mantendutako koefiziente guztien gehi termino finkoaren batura izanen da unitatea.

Epe hori igarotakoan, baldintza-agirian ezarritakoak arautuko du kontratua.

b) Administrazio klausula partikularren agiriak ez duenean ezartzen prezioen berrikuspenerako formula, zenbateko hau aitortuko da:

2021eko urtarrilaren 1etik (edo aurreneko ziurtapenetik, geroagokoa bada) kontratua bukatu arte obra gauzatzeagatik urtero ziurtatutako zenbatekoaren eta gauzate horrek prezioen berrikuspenerako eskubidea izan balu ziurtatuko zen zenbatekoaren arteko aldea, lizitazioarako oinarri gisa erabili zen eraikuntza-proiektuan agertzen den formula aplikatuta, edo, halakorik ezean, urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretuan (Administrazio Publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko obra-kontratuen eta hornidura-kontratuen prezioen berrikuspenerako oinarritzko materialen zerrenda eta ereduako formula orokorrak onartzen dituen) aipatutako kontratuetatik legokeena, aldaketa hauek eginda:

1) Ezabatu eginen da energiari dagokion kostu-elementua adierazten duen terminoa.

2) Handituko da termino finkoa, kontratuaren prezioaren frakzio berrikusezina adierazten duena, ezabatu den terminoaren koefizientearen balioa adina, eta, hartara, mantendutako koefiziente guztien gehi termino finkoaren batura izan da unitatea.

Arau hori aplikatuko da, nahiz eta oraindik ez egon gauzatuta kontratuaren zenbatekoaren %20 edo ez diren igaro bi urte kontratua formalizatu zenetik.

2. Baldintza-agiriak prezioak berrikusteko formula bat jaso ala ez, data hau hartuko da erreferentziatzat berrikuspen-formuletan 0 azpiindizearekin adierazitako prezio-indizeetarako:

a) Kontratua eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabeteko epean formalizatu bada, kontratua formalizatu zenekoa izanen da erreferentziako data, salbu eta formalizazio data 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa bada, halakoetan, 2020ko abenduaren 31 hartuko baita kontuan.

b) Kontratua eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabete igaro ondoren formalizatu bada, aipaturiko hiru hilabeteko epea amaitzen den eguna izanen da erreferentziako data, salbu eta data hori 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa bada, eta, halakoetan, 2020ko abenduaren 31 hartuko da kontuan.

Xedapen iragankor bakarra.

Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, Nafarroako Foru Komunitatean premiazko neurriak hartzen dituen apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretuaren 17. eta 19. artikuluen testu berria aplikatuko zaie, halaber, aurreko testuaren indarraldian egindako erreklamazioei, baldin eta foru lege-dekretu honek indarra hartzen duen egunean ebatzi gabe badaude.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregela-mendu bidez garatzea eta betearaztea.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuetako titularrei ere, zeinek bere eskumenen barnean, behar adina xedapen eman ditzaten, foru lege-dekretu honetan ezarrita dagoena garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea eta indarraldia.

Foru lege-dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 17an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria, María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía

